



EPAIMAHAIAREN OHARTARAZPENA

Nafarroako Unibertsitate Publikoan euskarako itzulpengintzako eta interpretazioko teknikari izateko lanpostu bat betetzeko oposizioa

2429/2025 EBAZPENA, azaroaren 7koa, Nafarroako Unibertsitate Publikoko kudeatzaileak emana, deialdi bat onesten duena Nafarroako Unibertsitate Publikoan euskarako itzulpengintzako eta interpretazioko teknikari izateko lanpostu bat (A maila) oposizioaren sarrera-prozeduraren bidez betetzeko.

Itzulpen probari buruzko oharrak

1.- Eguna eta tokia:

Izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onesteko argitaratu zen ebazpenean ageri den bezala, deialdiko itzulpen proba **2026ko maiatzaren 23an** izanen da, **larunbata, 10:00etan**, Nafarroako Unibertsitate Publikoko **Ikasgelategian, Iruñeko Arrosadiko campusean**, zehazki **016 ikasgelan**.

Izangaiek Nortasun Agiri Nazionala, AIZa, pasaportea edo gidabaimena aurkeztu beharko dute.

2.- Praktikoa da proba, eta bi ariketa izanen ditu:

a) Lehenbiziko ariketa: gaztelaniatik euskarara itzultzea epaimahaiak emandako testuak. Ariketa horri dagokion gehieneko puntuazioa 30 puntu izanen da.

b) Bigarren ariketa: euskaratik gaztelaniara itzultzea epaimahaiak emandako testuak. Ariketa horri dagokion gehieneko puntuazioa 10 puntu izanen da.

Bazterturik geldituko dira proban gehieneko puntuazioaren erdia lortzen ez duten izangaiak.

Itzuli beharreko testu guztiak emanen dira hasieran, eta guztira **3 ordu izanen dira (180 minutu)**, etenik gabe, izangaiak nahi bezala banatzekoak ariketak egiteko.

3.- Probaren ezaugarriak:

Word formatuan egonen dira itzulgaiak, eta ordenagailuan itzuli beharko dira, **Interneteko konexiorik gabe**. Izangaiek zilegi izanen dute probara **paperezko hiztegiak** eramatea. Ezin izanen du beste testu edo dokumentaziorik kontsultatu, ez eta gailu elektronikorik edo bestelako materialik erabili.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 15ean.

Epaimahaiburua
Aitor Leoz Blanco